Coop57 Fundazioa 2021eko MEMORIA

fundacio@coop57.coop

fundacio.coop57.coop

FUNDACIÓN
FUNDACIÓ
FUNDAZIOA
FUNDACIÓN
coop57

COOP57 FUNDAZIOA 3
Fundazioaren helburuak 3
Lau arlo estrategiko 3
Lan egiteko modua 4
2021 URTEKO EKINTZAK 5
DESBERDINTASUNEN ETA GIZARTE-BAZTERKETAREN AURKA BORROKATZEA 6
Casal Popular d'estiu La Bordeta kanpaina 6
#GiraZapatistaCAT kanpaina 7
Lliures proiektua 9
Somos Mimbres kanpaina 13
GureHaizeak elkarteari laguntza 15
TRANTSIZIO ENERGETIKOA SUSTATZEA 16
Germinador Social 16
LANDA-MUNDUA SUSPERTZEA 18
"Món Pagès, Terra Cooperativa" 18
BARRURA BEGIRA 20
Gobernantza sendotzea 20
Dohaintza-emaileen urteroko I. foroa 21
Oinarri soziala indartzea 22
GARDENTASUN EKONOMIKOA 23
2021eko zifra ekonomikoak 23
Entitate eta proiektuentzako laguntzak 24
AURRERA BEGIRA 25

COOP57 FUNDAZIOA

Coop57ren zereginetarako tresna paralelo eta osagarri izateko sortu zen Coop57 Fundazioa. Autogestiorako eta ahalduntze kolektiborako gunea da, eraldaketa sozial eta ekonomikorako konplizitate berriak ehundu nahi ditu eta herri-mugimenduen eta ekonomia sozial eraldatzailearen zerbitzura dagoen tresna izan.

Fundazioaren helburuak

- Ekonomia kooperatiboa sustatzea, ekonomia sozial eraldatzailean eragile berriak txertatzeko.
- Bete gabeko hutsuneak hautematea eta berrikuntzak proposatzea, erabateko demokrazia politiko, sozial eta ekonomikoa helburu.
- Larrialdiei erantzuna ematea.
- Hausnarketarako eta eztabaidarako espazioa izatea, eta erronkei aurre hartzea, Coop57ko jarduerari dagokionez, zehazki, eta ESEri dagokionez, orokorrean.

Lau arlo estrategiko

- **Desberdintasunen eta gizarte-bazterketaren aurka borrokatzea:** beharrezkoa da eragile komunitario, emantzipatzaile eta eraldatzaile berriak garatzea, asistentzia-lan eta desberdintasunak arintzeko ekimenez harago, eta behetik gorantz, eragindako pertsonen parte-hartze zuzena bermatzeko.
- **Lan-prekarietatearen aurka borrokatzea:** beharrezkoa da lan-borroka autonomo eta prekarizatuak laguntzea, eta herri-mugimenduekin konplizitateak aktibatzea, sektore produktibo askotan oinarri-oinarrizko lan- eta sindikatu-eskubideak defendatzeko
- **Landa-eremua suspertzea:** landa-eremuaren ageriko krisia dela eta, ardatz nagusitzat dugu hauen alde lan egitea: nekazaritza jasangarria, elikagai- burujabetza, ingurumen-justizia eta biodibertsitatea defendatzea.
- **Trantsizio energetikoa bultzatzea:** gehiegikeria ekologikoaren garaiotan, beharrezkoa da trantsizio energetikoa sustatzen duten prozesuak laguntzea, mundu bizigarriago eta jasangarriagoa eraikitzeko irtenbideak eskaintzen baitituzte.

Lan egiteko modua

Fundazioak sarean egiten du lan, Coop57ren oinarri sozialetik bertatik; herri-mugimenduei entzunda, eta lurralde osoan barna eguneroko alternatibak eraikitzeko dituzten ekimenekin lotuta. **Bizitza duina erdigunean jartzea,** elkargune beretik alternatiba sendoak eta solidarioak eraikitzeko: kooperatibismoa, finantza etikoa eta Ekonomia Sozial Eraldatzailea. Zeharkako printzipio gidari hauek hartzen ditugu oinarri:

ANTIARRAZISMOA **FEMINISMOAK**

EKOLOGISMOA

2021 URTEKO EKINTZAK

2020 urtean etapa berriari ekin ondoren, Coop57 Fundazioak jarduteko lau eremutan ekintzak proposatu eta abiarazteko helburuak finkatu ditu eta, horretarako, egiteko modua praktikan jartzen dugu, herri-mugimenduarekin lankidetzan betiere.

2021 urteko protagonistak COVID-19aren pandemiaren ondorioak izan badira ere, ahalegina egin dugu fundazioaren jarduteko esparrua zabaltzeko. Hala, eta gizarte-bazterketaren eta prekarietarearen aurkako lan-ildoek lehentasuna izan badute ere, beste hainbat urrats eman dira landa-mundua suspertzeko lan-ildoan.

Kooperatibismoko eta oinarriko kolektiboetako eragileekin interkooperazioari dagokionez, azken urtean aliantzak egin dira Kataluniako eta Aragoiko ESE entitate eta sareekin. Òmnium Cultural, ECAS eta Som Energiarekin ditugun aliantza historikoak ez ezik, etorkizunerako harreman berriak eraikitzen aritu gara

2021ean egindakoa ez litzateke posible izango herri-mugimenduarekin eta Ekonomia Sozial Eraldatzaileko entitateekin sarean lan egin gabe:

Asociación socioeducativa Gusantina | Asociación GureHaizeak | Escoleta Popular de la Bordeta i Grup d'Habitatge de Sants (GHAS) | Aula d'Idiomes SCCL | Assemblea de col·lectives i persones de Catalunya per la coordinació de la Gira Zapatista Per la Vida 2021 | L'Arada | Escola de Pastors | Raiels | L'Aresta | Tres Cadires | Idària | Som Energia | Òmnium Cultural | ECAS (Entitats Catalanes d'Acció Social)

Sarean, horizontaltasuna ardatz eta oinarritik lan egitea da Coop57 Fundazioaren egiteko moduaren iparra

DESBERDINTASUNEN ETA GIZARTE-BAZTERKETAREN AURKA BORROKATZEA

Casal Popular d'estiu La Bordeta kanpaina

Pandemiak eztanda egin zuenean, 2020ko udan, urteko unerik gogorrenetako batean, Aula d'Idiomes kooperatibak, Escoleta Popular de la Bordetarekin eta Grup d'Habitatge de Sants (GHAS) kolektiboarekin batera, Sants auzoan gizarte-bazterketa egoeran dauden familietako haurrentzako udalekuak antolatu zituen. Herritarren erantzunari esker, hainbat familiak izan zuten haien haurrentzat aisialdiaz gozatzeko aukera, uztailean zehar.

2021 urtean, hiru entitate sustatzaileek esperientzia errepikatu nahi izan zuten. Hala, eta Coop57 Fundazioarekin batera, **#ElLleureÉsUnDret** kanpaina abiarazi zuten. Helburua zen 3.500 euro eskuratzea, Santseko udaleku errebelde eta herrikoien edizio berriaren gastuei aurre egiteko. Azken xedea zen haurrentzako zein begiraleentzako baldintza hobeak lortzea. Mikromezenasgo-kanpainak arrakasta handia izan zuen eta ehun bat pertsonaren laguntzaz, **3.658 euro** lortu zituzten guztira.

Lortutakoari esker, udaleku errebelde eta herrikoiak egin zituzten. Uztaileko lau asteetan, 6 eta 12 urte bitarteko 35 haurrek parte hartu zuten udalekuetan. Oso esperientzia aberasgarria izan zen haurrentzat eta haien familientzat, baita entitate sustatzaileentzat ere.

#GiraZapatistaCAT kanpaina

Zapatistek Europara egindako bisita antolatzeko kolektiboekin batera aritu zen Coop57 Fundazioa. Mugarri historiko hori posible izan da antolakunde eta pertsona askok, behetik, Bira Zapatistari harrera eman diotelako, bisitatu dituzten lurralde eta herrialdeetan.

Assemblea de col·lectives i persones de Catalunya per la coordinació de la Gira Per la Vida 2021 kolektiboarekin batera, Coop57 Fundazioak #GiraZapatistaCAT kanpaina sustatu zuen. Helburua soila baina anbizio handikoa zen: erresistentzia-kutxa bat abiaraztea, zapatisten logistika- eta harrera-gastuak ordaintzeko.

Erantzuna oso ona izan zen, eta **22.403,98 euro** jaso ziren, **320 dohaintzen bidez**. Coop57 Fundazioaren iritziz, ohorea izan da *Gira Zapatista europea Por la Vida* ekimenean parte hartzea.

Biran zehar, zapatistek aukera izan zuten hainbat eta hainbat borroka sozialekin topaketa politikoak egiteko, esperientziak partekatu zituzten, eta Europako lurralde bakoitzeko tokiko errealitateak ezagutu. Bueltan datorren bisita hori –izan ere, duela hogeita hamar

urtetik hona, haiek izan dira milaka pertsonen bisita jaso dutenak– memoria, erreparazio eta harremanak eraikitzeko ariketa izan da.

Lliures proiektua

Proiektu hau Coop57 Fundazioak, Òmnium Culturalek eta ECASek (Entitats Catalanes d'Acció Social) entitateak sustatzen dute, urtero, 2016az geroztik.

3.000 pertsona baino gehiagoren laguntzari esker, 120.000 euro lortu ziren aurtengo edizioan hautatutako zazpi proiektuentzat. Lehenengo faserako 68.724,75 euro ordaindu ziren. Gainerako 51.000 euroak 2022ko maiatzean ordaindu dira. Proiektu guztiek, behetik, gizarte-desberdintasunei erantzuna eman eta sare komunitarioko alternatibak eraikitzen dituzte.

2021 urte hasierako deialdira Katalunia osoko 100 proiektu aurkeztu ziren. Horietatik 88k betetzen zituzten ezarritako baldintzak. Proposamenak xehe irakurri ondoren, Ebaluazio Sozial eta Ekonomikorako batzordeek (GAS eta GAEk) eta zuzendaritza-batzordeak zazpi proiektu hautatu zituzten. Proiektuok Lleidakoak, Maresme eskualdekoak, Bartzelonakoak (Raval eta Ciutat Vella auzoak), L'Hospitalet de Llobregatekoak eta Vic-ekoak dira.

2021 urtean Lliures proiektuak lagundutako proiektuak honako hauek dira:

"Recuperem el rebost i l'armari", Associació Casal Claret: Vic udalerriko ekimen honen helburua da emakumeentzako lanpostu duinak eta bidezkoak sortzea, ikuspegi komunitarioa oinarri hartuta. Guztira: 15.101 euro (2021ean ordaindu dira: 9.000 euro)

Obrint portes per l'Habitatge Social: hiriko *masoveria* bidez, Obrint Portes proiektuaren asmoa da Lleidan hutsik dauden etxebizitzak birgaitzea eta bidezko alokairuan jartzea, etxebizitza eskuratzeko zailtasunak dituztenentzat. Guztira 15.816 euro (2021ean ordaindu dira: 10.000 euro)

L'Osada de Metzineres: espazioaren asmoa da modu integralean laguntzea hainbat egoera konplexu direla medio (indarkeria-egoera, etxerik ez izatea, drogen erabilera, sexu-lana, buruko osasuna, etab.) kalteberatasun-egoeran dauden emakumeak laneratzen. Jardunaren oinarrian ikuspegi feminista intersekzionala, kalteak murriztea eta giza eskubideak dituzte eta, horien bidez, emakumeen autonomia, ahalduntzea eta ongizate fisiko, emozional eta psikologikoa hobetzea dute helburu. Guztira: 16.816 euro. (2021ean ordaindu dira: 10.000 euro)

"Drets energètics en mans de la infància", d'Associació Catalana d'Enginyeria Sense Fronteres: Con este proyecto, se quiere acompañar a la infancia en situación de pobreza energética para que pueda contribuir a mejorar sus condiciones de vida mediante su visibilización en cuanto que sujetos políticos de pleno derecho. Para conseguirlo se generarán espacios de participación real donde menores puedan elaborar sus experiencias vividas en turno a la pobreza energética. Se quiere así iniciar un proceso de apoderamiento para hacer propuestas de políticas públicas para abordar los impactos de la pobreza energética en la infancia en Catalunya. **Comprometido: 17.816 euros (Desembolsado 2021: 10.000 euros)**

"Consolidem les estructures populars del Baix Maresme", Xarxa d'estructures populars del Baix Maresme: proiektua eskualdeko herri-egiturak indartzeko jaio zen. Egitura horien asmoa da etorkizunean jasangarritasun eta eragin handiagoa izatea. Kolektiboak hauek dira: Vatua l'Olla elikagai-sarea eta jangela soziala, Eskola herrikoia, Gazte migratuen taldea, Atzerritarren taldea, Aisialdi formatiborako espazioak eta Emakume-taldea. Lanbide-eskola bat ere sortu nahi dute. **Guztira: 16.816 euro. (2021ean ordaindu dira: 10.000 euro)**

"Comunitats Alimentàries. De la vulnerabilitat a la sobirania", de Xarxa d'Economia Solidària de L'Hospitalet: proiektuaren helburua da egungo elikagai-bankuaren eredua eraldatzea eta, horretarako, kalteberatasun handieneko komunitateekiko dauden dinamika asistentzial eta estigmatizatzaileekin hautsi eta elikadura osasuntsuaren eskubide unibertsala bermatzea. Asmoa da elikagaien erosketa publikoak gertuko nekazaritza agroekologikoa lehenestea. Bestalde, herritarren eta entitateen arteko harremanak eta loturak sendotu nahi ditu, eta proiektua abiaraziko duten lurraldeetako indarkeriei aurre egin. Azkenik, kalteberatasun-egoeran dauden kolektiboen ezagutzak eta egiteko moduak leheneratu nahi ditu, desberdintasunak betikotzen dituzten dinamikak errotik eraldatzeko. Guztira: 16.816 euro (2021ean ordaindu dira: 8.408,25 euro)

Micaela: pandemiak larriagotutako gizarte-bazterketako eta pobreziako egoeraren aurrean, etxeko eta zaintza-langile emakume migratzaileen Micaela kolektiboak antolatzea eta gizarte-ekimeneko kooperatiba sortzea erabaki zuen. Horren bidez, haien lana balioan jartzea eta kooperatibizatzea da helburua, eta zaintza-lanetako kontratazioa eta kudeaketari alternatiba soziala eskaintzea. Guztira: 20.816 euro. (2021ean ordaindu dira: 10.816,5 euro)

Somos Mimbres kanpaina

Lehenengo aldia da Aragoiko Coop57rekin batera proiektu bat sustatzen dela: #SomosMimbres kanpaina, Gusantina elkarte sozioedukatiboarena.

Ikastetxe hau entitate erreferentea de Zaragozako La Madalena auzoan. Bazterketa sozioekonomikoko testuinguruan, hainbat familiari laguntzen die beren seme-alabak zaintzen, hala kontziliazioa sustatzen dute, gurasoek formaziorako eta lanerako alternatiba bilatzen duten bitartean.

Coop57 Aragoiko sailaren babesa jaso du eta berehala bildu dira **21.064,99 euro, 257 dohaintzen bidez**. Kanpaina Zaragozako Pilaretako jaietan amaitu zen, urriaren erdialdean. Hala ere, egun batzuk lehenago, elkartasunak gainezka egin eta 15.000 euro eskuratu ziren uste baino lehenago. Gainera, dohaintza gehienak Aragoikoak dira.

Kanpainaren bidez, auzoan zazpi gazteren lanpostua bermatu ahal izan da, eta zaintza-lanetarako 1.350 ordu izango dituzte ordainduta, lau hilabetetarako.

«Mimbrera»k auzoko gazteak dira, eta zaintza-lanez arduratzen dira beren autonomiarako behar dituzten tresnak bereganatzen dituzten bitartean; lehendabiziko lan-esperientzia dute Gusantinan, La Madalena auzoan, Zaragozako Alde Zaharrean. Elkarteak hamar urte baino gehiago daramatza kontziliazioaren inguruko beste errelato bat sortzen La Madalena auzoan.

GureHaizeak elkarteari laguntza

GureHaizeak elkartea sortu berria da, eta xede soziala du borroka antiarrazista sustatzea, baita Donostiako beste herri-mugimenduekin harremanak eraikitzea ere. Halaber, administratiboki legez kanpoko egoeran dauden migratzaileei lagundu nahi die beren bizi-prozesuan eta laneratzean eta, ahal bada, administratiboki legeztatzeko prozesuan.

Proiektua Donostiako Gros auzoko ile-apaindegi komunitarioan egituratzen da eta, bertatik, auzoko eta hiriko ehun sozial eta kulturalean eragin nahi du. Horretarako, borroka antiarrazistari eta feministari lotutako jarduera soziokulturalak sustatu nahi dituzte.

2021 urtean, Bizihotsa kanpainaren (2020ko laguntza-kanpainaren) soberakinak GureHaizeak laguntzeko erabiltzea erabaki da. Ekarpen horri esker, lege- eta administrazio-aholkularitzako gastuak ordaindu dira, eta egun elkartean lan egiten duen ile-apaintzaile baten kontratazio-kostuei aurre egin zaie.

TRANTSIZIO ENERGETIKOA SUSTATZEA

Germinador Social

Som Energiak eta **Coop57 Fundazioa**k konpromisoa hartu dute eredu energetiko eta soziala eraldatzen elkarrekin aritzeko. Hori dela eta, interkooperazioari esker, Germinador Social ekimena sustatzen dugu, gizarte-eredu berritzaileak sortzea bultzatzeko eta trantsizio energetikorako tokiko eragile berriak sustatzeko.

2021 urtean, ekimenaren bosgarren edizioa egin da eta, lehenengo aldiz, **herritarren bozketa** hartu da kontuan baloraziorako. Bi dira ekimenaren kategoriak:

- **Tokiko Energia Komunitateak:** proiektu hauen helburua da herritarren komunitate bat eratzea eta, parte-hartze ireki eta kolaboratiboaren bidez, energia-baliabideak tokian bertan eta modu bidezko, efiziente eta jasangarrian kudeatzea lortzeko beharrezko ekintzak sustatzea.
- **Energia Pobrezia:** proiektu hauen helburua da energia-pobreziaren arrazoiak eta ondorioak (oinarrizko beharrizanak asetzeko nahikoa energia kantitatea eskuratzeko zailtasuna), egiturazkoak eta testuingurukoak, ahalik eta gehien murriztea.

Guztira, **16 proiektu** aurkeztu dira, gehienak Tokiko Energia Komunitateak sortzeko kategorian. 4.348 pertsonak hartu dute parte bozketan eta horrek esan nahi du aurkeztu diren proiektuek badutela lurraldean sarea.

Saritutako proiektuak

- **Tokiko Energia Komunitateak** kategorian
  - **La Fresneda.** Proiektu honek eguzki-planta eta minihidrauliko bat instalatu nahi du Teruelen, elektrizitatea banatzeko sarerik ez duen leku batean. Orain arte, herritarrek ekipo elektrogenoak erabili dituzte **(6.000 euro)**
  - **Solidarizando el Sol.** Valentziako ikastetxe honetan autoekoizpena sustatu nahi dute energetikoki autosufizienteak izateko. Energia-soberakina pobrezia-egoeran dauden Malvarrosa auzoko familiei banatuko zaie **(5.000 euro)**
  - **Cooperativa La Raval Sostenim la vida.** Belaunaldi arteko etxebizitza eraiki nahi du kooperatiba honek, Manresa erdigunean. 18 gela eta espazio komunitarioak izango ditu eta, bertan, energia berriztagarriak erabiltzea lehenetsiko da **(4.000 euro)**
  - **Viure de l'Aire de Barcelona.** Elektrizitatea sortzeko proiektu eolikoa da, Bartzelona hirian eta ingurunean egiteko. Proiektuaren oinarria dira jasangarritasuna, herritarren parte-hartzea, hurbiltasuna eta energiaren demokratizazioa **(4.000 euro)**

- **Energia-pobreziaren** aurka borrokatzeko kategorian
  - **Autoconsumo colectivo para hogares vulnerables.** Autokontsumo kolektiborako instalazio fotovoltaikoak muntatu nahi dituzte Sevillako familia kalteberen etxebizitzetan. Horretarako, partaidetza-finantziazioa sustatuko dute **(6.000 euro)**
  - **Cañada Solar.** Madrilgo La Cañada Real auzoko familiei iturri berriztagarrien bidez eskuratutako elektrizitatea bermatzeko hiru soluzio garatzea du helburu proiektuak. Lurraldeko beste lekuetara hedatzea ere asmo dute **(5.000 euro)**

LANDA-MUNDUA SUSPERTZEA

"Món Pagès, Terra Cooperativa"

"Món Pagès, Terra Cooperativa" proiektua Coop57 Fundazioak, L'Arada, L'Escola de Pastors, Raiels, L'Aresta, Tres Cadires eta Idària entitateek elkarrekin sustatu dute. Kataluniako Lan Kooperatiben Federazioaren kooperatibismoa sustatzeko programak diruz lagundu du. 2021 urtean zehar, hauek izan dira proiektuaren ildoak:

- Tokiko bost ekosistema agroekologikoren oinarrizko analisi konparatiboa egitea, detektatzeko horietako bakoitzaren berezko alderdiek nola eragiten duten ESEko ekimen agroekologikoen bideragarritasun sozial eta ekonomikoan.
- Ekimen agroekologikoek kooperatibismoan enplegua sortzeko dituzten zailtasunak detektatzea.
- Proiektu agroekologikoetarako eta lan-kooperatibismoan antolatu nahi duten proiektuentzako prestakuntza- eta aholkularitza-beharrizanak detektatzea.
- Proiektu agroekologikoetara egokitutako finantza-produktuak pentsatzeko tresnak bereganatzea.
- Landa-mundua eraldatzeko ESEko eta kooperatibismoko zenbait praktika adierazgarri eta hedagarriak detektatzea eta ezagutaraztea.

Coop57 Fundazioan ziur gaude proiektu horri esker lortuko dugula **landa-mundua suspertzeari eta finantza etiko eta solidarioko entitateek horretan dugun funtzioari buruzko hausnarketan sakontzea**.

Diagnosi kolektiboko fasean lurralde osoko hirurogei entitate baino gehiagok hartu dute parte eta, fasearen ondotik, ESE ehunari helarazi zaio emaitzen txostena: **"Món Pagès, Terra Cooperativa. Economia Social i Solidària i cooperativisme de treball en els ecosistemes agroecològics locals de Catalunya"**. Eskuragarri duzue, katalanez, Coop57 Fundazioaren webgunean.

Txostenak jasotzen ditu agroekologiari eta ESEri lotutako egitura sozialaren ezaugarrien eta egoeraren informazio adierazgarria. Halaber, **hobetzeko proposamenak** ere egin dira, ESEren esparruan ekimen agroekologikoen **bideragarritasun sozial eta ekonomikoa** ardatz dutenak. Bertan jaso ditugu antzemandako hainbat praktika adierazgarri eta hedagarriak.

BARRURA BEGIRA

Gobernantza sendotzea

Coop57 Fundazioa demokratikoa eta parte-hartzailea da, Coop57ren Batzar Nagusian izendatutako Patronatuak zuzentzen du eta erabaki guztietan kooperatibako gobernu-organoetako kideek parte hartzen dute.

Coop57ren demokraziaren eta parte-hartzearen printzipioak gure egiten ditugu. Coop57ren Batzar Nagusian balioztatzen dira, urtero, Plangintza, aurrekontua eta, baita ere, Coop57 Fundazioko Patronatuko kideen hautaketa.

Dohaintza-emaileen urteroko I. foroa

Gardentasuna Coop57 Fundazioaren demokrazia bermatzeko printzipio nagusienetako bat da. Hori dela eta, kontu emateko espazio parte-hartzaile bat abiarazi da 2021 urtean: **Dohaintza-emaileen Urteroko Foroa**.

Lehenbiziko aldiz ospatu zen pasa den urriaren 14an, eta hausnarketa kolektiborako ez ezik, babestutako proiektuak ezagutarazteko aukera izan zen. Hala, mahai-inguruan parte hartu zuten honako hauek: Aziz Faye (Sindicato popular de vendedores ambulantes de Barcelona), Tamara Clavería Jiménez (AMUGE Euskadiko Emakume Ijitoen Elkartea), Mireia Chavarría (Aula d'Idiomes) eta Pedro Manuel Molina (Asociación Cultural Gitana Vencedores). Haiekin batera parte hartu zuten David Vázquez gizarte-hezitzaileak eta Sira Vilardell Surt Fundazioko kide eta Lliures Proiektuko ordezkariak. Saioaren amaieran, bertaratutakoek parte hartzeko espazioa ireki zen.

Oinarri soziala indartzea

Coop57 Fundazioaren helburuetako bat da dohaintza-emaileen oinarria indartzea, hala fundazioaren ekiteko gaitasuna sendotzeko. 2021 urtean zehar, **160 pertsonak** eta **18 entitatek** egin dute Fundazioaren aldeko apustua, eta zuzeneko dohaintzak egin dituzte (kanpainetatik kanpo). Guztira, **57.756 euro** bildu dira.

2021eko berritasuna izan da ekonomia sozial eraldatzaileko erakundeekin topaketak egin direla, aliantzak sortu eta Fundazioaren alderdi ekonomikoa eta barne-jasangarritasuna indartzeko. Guztira **27.832,95 euro bildu ditugu dohaintzen bidez.**

Eskerrik asko gure alde egin eta bidea gurekin egiteagatik:

Tavora Teatro Abierto, Sociedad Cooperativa Andaluza | Propaganda Pel Fet | Tapuntu Kooperatiba Elkarte Txikia | Associació Prohabitatge | Fundacio Intermedia | Surt Fundació De Dones | L'Apòstrof, SCCL | Colectic, SCCL | Gedi, Gestió i Disseny, SCCL | Talaios Ahalduntzean Oinarritutako Sareak Koop. Elk. Txikia | Totem Mt Koop. Elk | Casal (Col·lectius Autogestionats) | Col·lectiu Ronda, SCCL | Ciutat Invisible, SCCL | Fundació Roca Galès | Arç Corredoria d'assegurances, SCCL | Calidoscoop, SCCL | Coop57, SCCL

Urteko azken hiruhilekoan diru-bilketa kanpaina abiarazi genuen, gure oinarri soziala handitze aldera, “Zubiak eraikiz” lelopean. Kanpainaren bidez, balioan jarri dira ekimen berritzaileen bidez ehuntzen ditugun elkar laguntzarako elkartasun-zubiak. Ekimen horiek autogestionatuak, Ekonomia Sozial Eraldatzailean errotuta eta feminismoetan, gizarte-bazterketaren aurkako borrokan, ekologismoan edo antiarrazismoan daude oinarrituta.

“Zubiak eraikiz” kanpainak 8.573,15 euro bildu zituen sei astetan. 43 dohaintza jaso ziren.

GARDENTASUN EKONOMIKOA

2021eko zifra ekonomikoak

2021. urteko diru-sarrerak, guztira, 214.225,07 euro izan dira; % 99 dohaintza kapilarrak, autogestionatuak eta berezko diru-sarrerak dira.

DIRU-SARRERAK	
Fundazioaren jarduera	2.623,99 €
Ekitaldiko diru-sarretara transferitutako dohaintzak	211.101,08 €
Ekitaldiko diru-sarretara transferitutako dirulaguntzak	500,00 €
GASTUAK	
Pertsonala	32.514,72 €
Funtzionamendu-gastuak	18.691,61 €
Lliures Proiektuaren gastuak	24.209,69 €
Entitate eta proiektuentzako laguntzak	125.688,51 €
Ibilgetuaren amortizazioa	2.412,78 €
Ekitaldiaren emaitza	10.707,76 €

Entitate eta proiektuentzako laguntzak

2021 urtean **125.688,51 euro** eman dira **20 entitate eta proiektuentzat**.

Lliures Proiektuko 7 ekimen	**68.724,75 €**
Somos Mimbres kanpaina	**20.258,74 €**
Funts Kooperatiboaren soberakinetik (2020) 9 ekimen laguntzea	**14.700,00 €**
GiraZapatista kanpaina	**16.030,00 €**
Casal Popular d'estiu de La Bordeta kanpaina	**3.475,02 €**
GureHaizeak-i laguntza	**2.500,00 €**



AURRERA BEGIRA

2022 urtera begira, Coop57 Fundazioaren aldizkako dohaintzen oinarria indartzeko lanean jarraituko dugu, aliantzak sortzen eta proiektu kolektiboen zerbitzurako ateak irekitzen jarraitzeko baldintzak eman daitezen. Xedea da oinarriko ekimen eraldatzaileak laguntzea, eraldaketa sozialeko prozesuak sortzen ari direnak. **Hori guztia dela eta, beharrezkoa da fundazioa sendotzeko denok, Coop57 osatzen dugun pertsona eta entitate guztiek, parte hartzea.**

"Ezinezkoa hitzak zerbait gertatu aurreko unea baino ez du definitzen"
Erri de Luca